**GERRAT DU VÁIMMU / BRACE YOUR HEART • Suedia - Norvegia - Danimarka - Islandia - Bulgaria**

Amanda Kernell (zuzendari eta gidolaria)

Eva Åkergren (ekoizlea), Kalin Kalinov eta Lisa Marie Kristensen (ekoizlekideak)

Elur-oreinen zaintza ez da bihotz ahulentzat

SERGIO BASURKO

Amanda Kernellen hirugarren film luzeak Ejvaren istorioa kontatzen du, aita zenak oinordetzan elur-oreinen talde bat utzi dion emakume gaztearena. Orein-saldoa aurrera ateratzeko borrokan ari dela, bere bizitza sentimentalak, ordea, kolokan egingo du, bi gizonen artean endredatuta baitago: Egoera horrek erreakzio bortitza eta aztoratzailea eragingo du komunitatean, eta bizitza are gehiago korapilatuko zaio. Hartara, gizonen nagusitasuna duten komunitate horretan bere lekua aldarrikatu beharko du.

Filmaren erronka nagusietako bat istorioaren indar emozionala eta Suedia iparraldeko klima gogorretako bizimodua uztartzea izan da. Sápmi, lehen Laponia izenez ezagutzen zen lurraldea, muturreko eguraldi-baldintzak ditu ia urte osoan. "Hemen akatsen bat eginez gero, hil egin zaitezke",



Amanda Kernell, sumi jatorriko zuzendari suediarra.

ULISES PROUST

azaldu du Kernellek. "Izotza mehea da, negua hotza, eta denetik urrun zaude..."

'Gerrat du váimmu' elur-oreinzainei esaten zaien esamolde bat da. "Literalki, zure bihotza gogortu esan nahi du", esplikatzen du Amanda Kerne-

llek filmaren izenburuaz. "Adinekoek gazteei artzaintza-garaian animoak emateko esan ohi dieten leloa da, baldintza horietan bizirautea gogorra baita oso. Lanbide latz eta arriskutsua da: Elur-oreinen zaintza ez da bihotz ahulentzat", gaineratu du.


Kernellek azpimarratu duenez, istorioaren muinean barkamena eta sendabidea daude. Zuzendariak galdere deseroso bat planteatzen du: "nola sendatu gertaera traumatiko baten ondoren, ihes egin ezin duzun komunitate txiki batean, non bizikidetzeta eta taldearen biziraupena bermatzeko dena barkatu behar den?"

Torontoko zinemaldian 'western arktikotzat' jo zuten film honen atzeoihalak elurretako bizimodu izoztua erakusten du. "Gaizki atera zitekeen guztia gaizki atera zen", dio Kesselek irribarrez. "Ez nioke inori gomendatuko horrelako baldintzetan filmatzea. Baina, hala eginez gero, egizue benetako elur-oreinzainekin. Telefono-estaldurarik ez dagoen eta elur-jausi ugari gertatzen diren lekuetan arazoak konpontzen ohituta daude".

Aktore nagusietatik aparte pelikulan agertzen diren pertsonaia gehienak elur-oreinen artzaintzan diharduen komunitateko benetako kideak dira. Zuzendariak aitortu duenez, "filmaketa ez zen erraza izan, askok zalantzak izan baitzituzten parte hartzeko. Izan ere, haientzat antzezpina baino garrantzitsuagoa zen beren animalien zaintza eta ongizatea bermatzea".

Healing what we inherit

Amanda Kernell brings Sámi culture to the Official Selection with *Brace Your Heart*, a deeply personal story of love, trauma and forgiveness. Ejva, a young reindeer herder, inherits her father's herd and struggles to preserve both her livelihood and her place in a close-knit community. When love, jealousy and violence upend her life, she must find a way to heal without abandoning who she is. Kernell, whose father's family is Sámi reindeer herders, calls the film a "healing" work and a declaration of love for this way of life. Rather than turning Sámi culture into a postcard, she wanted everything to feel real, filming with people who know reindeer herding firsthand. At its core, *Brace Your Heart* asks whether forgiveness can be a path to freedom.

**LAS CIEGAS HORMIGAS** | PRODUCCIÓN, COLOR, SONIDO Y ENTREGA**MASPALOMAS** | POSTPRODUCCIÓN COMPLETA**LA CENA** | PRODUCCIÓN Y POSTPRODUCCIÓN COMPLETA

HACEMOS POSTPRODUCCIÓN COMO SE HACE EL CINE: **CON CRITERIO, CON TIEMPO Y CON UNA MIRADA PROPIA.** ACOMPAÑAMOS PELÍCULAS.



UN ESTUDIO, UN FLUJO.
DIEZ AÑOS CONTANDO HISTORIAS.

elamedia

ESTUDIOS

ESTUDIOS DE POSTPRODUCCIÓN,
LABORATORIO, SONIDO Y VFX

DONOSTI/ SAN SEBASTIÁN • BILBAO
MADRID • PAMPLONA • CANARIAS



**DALE FORMA
A TUS PROYECTOS
CON ELAMEDIA**

PART OF

sideral

ALIVE

RAW

laivingston

CINEMA